

1. idazlana

Gaia:


Gauero etxera bueltatzen zarenean, lotu gabe ibiltzen den txakur batekin topo egiten duzu atarian.

Egitekoa:

Kexa gutuna idatzi egunkarira bidaltzeko.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- Egoera azaldu.
- Txakurrei diezun beldurra aipatu.
- Jabearen jarrera.
- Konponbideak proposatu.



2. idazlana

Gaia:

Auzoan gero eta zikinago daude bazter guztiak, eta ezin da lasai eta gustura paseatu.

Egitekoa:

Auzoan zabaltzeko asmoz, idazki bat prestatu egoera salatzeko, eta bilera bat egiteko proposamena egin.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- Egoera eta horren ondorioak garbi azaldu.
- Zuk proposatzen dituzun neurriak plazaratu.
- Bilera egiteko proposamena egin.



1. idazlana

Gaia:

Duela gutxi erositako ordenagailuak arazo ugari ematen dizkizu.

Egitekoa:

Ordenagailua saldu zizun saltokiari kexu eskutitz bat idatzi behar diozu konponbidea eskatzeko.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ☞ Zure arazoak azaldu.
- ☞ Konponbidea eskatu.
- ☞ Erantzun egokirik jaso ezean, zein neurri hartuko dituzun adierazi.



2. idazlana



Gaia:

Euskal Herriko produktuen denda bat irekitzeko asmoa duzue bi lagunen artean.

Egitekoa:

Modu erakargarrian ohar bat idatzi auzoko etxeetako postontzietan sartzeko.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ☞ Zeuen burua aurkeztu.
- ☞ Zer saltzen duzuen azaldu.
- ☞ Denda bisitatzeko gonbita egin.

1. idazlana

Gaia:


Zure etxean igogailua jartzea erabaki dute bizilagunek. Langabezia zaude eta ezin duzu dagokizun zatia ordaindu.

Egitekoa:

Kontsumitzaileen aldizkari batera eskutitz bat idatzi, zer egin behar duzun galdetzeko.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- Zure egoeraren berri eman.
- Diru-laguntza publikorik ba ote dagoen galdetu.



2. idazlana



Gaia:

Etxe ondoko plazan debekatuta daude zenbait jolas.

Egitekoa:

Kexa gutuna prestatu herriko aldizkarian edota egunkarian ateratzeko.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- ☞ Umeek ez dute jolasteko tokirik.
- ☞ Plazak hutsik daude, umerik gabe.
- ☞ Konponbideak proposatu.

3. idazlana

Gaia:

Azken boladan telefono konpainiak publizitate asko bidaltzen dizu sakelakora.

Egitekoa:

Publizitatea jasotzeari uzteko, idatzi gutuna telefono konpainiari.

Nahitaez eman behar duzun informazioa:

- Noiz hasi zinen jasotzen eta nolakoa den publizitate hori.
- Kexa edo haserrea adierazi, baimenik gabe bidaltzen dizutelako.
- Eskatu lehenbailehen bidaltzeari uzteko.

